



Idiazabalgo
Udala

OHIKO UDALBATZARRA
2022ko ekainaren 30ean

LEKUA: Udaletxeko Batzar Areto Nagusia

LEHENDAKARIA: Iñaki Alberdi Iparragirre (EH BILDU)

BERTARATUTAKO ZINEGOTZIAK:

Aloña Barandiaran Munduate (EH BILDU)

Iñaki Arriaran Murgiondo(EH BILDU)

Ioana Prados Alustiza(EH BILDU)

Aritz Ugarte Munduate.(EH BILDU)

Eunate Elio Cemborain(EH BILDU)

Ioritz Imaz Baztarrika (IZAL BAI)

Andoni Gomez Aldanondo (IZAL BAI)

EZ BERTARATUTAKO ZINEGOTZIAK:

Igor Ariztimuño Iparragirre (IZAL BAI)

Aitzol Mendizabal Malkorra (IZAL BAI)

Iker Zabaleta Urcelai (IZAL BAI)

IDAZKARIA: Leire Ucin Soraluze

DEIALDIA: Lehenengoa.

ORDUA: Hasiera: 18:00etan

GAI ZERRENDA

1.Aurreko akta onartzea, hala badagokio.

Alkateak esaten du,aurreko aktan galdera eskaeretako atalean, asfaltatze lanen inguruan, honako hau dioela: Ioritz Imazek gezurra esatea leporatzen die EH Bildukoei, hau da, esaten du aurretik zekitela bizikleta karrerarako asfaltatze lanak bukatuta egon behar zutela.



Idiazabalgo Udala

Alkateak dio beraiek ere erantzun ziotela honako hau esanez: ez direla gezurretan ari, urtarrilean oraindik ez zekitela bizikleta karrera maiatzak 19an izan behar zuela, alegia.

Idazkariak erantzuten dio aldatuko duela.

2. Dekretuen berri ematea.

Inork ez du ezer esateko Dekretuei buruz.

3. Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamendua eta Idiazabalgo Udalaren arteko lankidetzaz hitzarmena onartzea, hala badagokio.

Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun Saiak datuen lagapenerako hitzarmen eredu bat proposatu du.

Bozkan jartzen dute puntua eta AHO BATEZ onartzen da.

4. Kreditu gehigarriari dagokion 2022-KALD-000012-00 kreditu aldaketa espedientearen onartzea, hala badagokio.

KREDITU GEHIGARRIEN PROPOSAMENA

Udal zerbitzuek dituzten premiei eta obligazioei aurre egiteko, beharrezkoa da hainbat gastu berehala egitea. Izan ere, horiek atzeratuz gero sortuko litzatekeen kalteak eragin nabarmena izango luke zerbitzuen kalitatean. Aurrekontuaren exekuzioaren arabera, ordea, gastu partidetan ez dago nahiko krediturik aipatutako gastuei aurre egiteko. Ondorioz, kredituak sortzeko edo, hala badagokio, gehitzeko proposatzen da, ondoko taulako xehetasunaren arabera:

Gastuen partida	Azalpena	Kredituak		
		Egungoak	Aldaketak	Behin betikoak
1 227.00.312.00 2022	Osasun zentruko garbiketa	0,00	7.000,00	7.000,00



Idiazabalgo Udala

	zerbitzua			
1 227.00.920.00 2022	Idazk. Kontu zerbitzuak	50.000,00	13.196,48	63.196,48
GUZTIRA		50.000,00	20.196,48	70.196,48

Kod.	Partida	Azalpena	Zenbatekoa
a	2 870.01.000 2022	Diruzaintza gerakina	20.196,48
FINANTZAKETA GUZTIRA			20.196,48

Udaleko Idazkari kontu-hartzailea naizen honek, txosten hau idatzi dut Alkateak 2022(e)ko ekainaren 20(e)ko Dekretuan agindutakoa betez, eta 128/2018 Errege Dekretuak, martxoaren 16koak, udal administrazioan estatu mailako gaikuntza duten funtzionarioen araubide juridikoa erregulatzen duenak, 4.1. artikulua g) eta h) letretan ematen dizkidan funtzioez baliatuz.

TXOSTENA

Alkatearen proposamenean jasotako gastu berri edota handiagoei aurre egiteko ez dago behar hainbat kreditu aurtengo aurrekontuan.

Hori hala izanik, proposatutako ordainketa kredituen sorkuntza edo gehikuntza formalizatzeko bidea kreditu aldaketen espedientea tramitatzea da, kreditu gehigarrien modalitatean, 21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Gipuzkoako Toki Entitateen Aurrekontuei buruzkoak, 34. artikuluan agintzen duenaren arabera.

Kreditu gehigarriak kapital eragiketei badagozkie, besteak beste kreditu eragiketetara jo ahal izango da haiek finantzatzeko.



Idiazabalgo Udala

Kreditu gehigarriak finantzatzeko proposatu diren baliabideak bat datoz aipatutako xedapenak aurreikusitakoekin. Gainera, proposatutako finantzaketaren kopurua nahikoa da kreditu gehigarriak oso-osorik finantzatzeko.

Proposatutako gastu berri edota handiagoen premia behar bezala egiaztatuta dago, Alkatearen proposamenean espresuki jasota geratu baita, eta zerbitzuetako aurrekarietatik eta haiei buruzko gainerako kontabilitate datuetatik hala ondorioztatzen baita.

Aipatutako foru arauaren 34.3. artikulua araberan, kreditu gehigarrien modalitatean egin beharreko kreditu aldaketarako espedientea onartzeko eskumena Udalbatzari dagokio, nahiz eta Alkatearen eskumena den hasierako kredituen %5eko muga arte kreditu aldaketak onartzea, 2022ko aurrekontuaren exekuzio arauaren arabera, eta aplikagarriak zaizkio aurrekontua onartzeko ezarritako informazio, erreklamazio, publizitate eta errekurtsioei buruzko tramiteak. Gainera, espedientearen kopia Gipuzkoako Foru Aldundiari igorri behar zaio.

Hori guztia kontuan izanik, aditzera ematen dut aztertutako espedienteak bete egiten duela legez ezarritakoa.

Puntua bozkan jartzen dute eta AHO BATEZ onartzen da 4. Puntua.

5. Udal korporazioko kideei 2019ko ekainetik atzeraeraginezko efektuekin Osoko Bilkuretan parte hartzeagatik asistentziak ordaintzea onartzea, hala badagokio.

Erabakia: Udal Korporazioko zinegotzi bakoitzari, Alkatea ez ezik, hileko 40 Euro ordaintzea, 2019ko ekainetik atzeraeraginezko efektuekin.

Puntua bozkan jartzen da eta AHO BATEZ onartzen da erabakia.

6. Idiazabalgo Udaleko bideen inbentarioari hasierako onarpenera ematea, hala badagokio.

BIDE PUBLIKOEN INBENTARIOA **Txosten juridikoa**



Idiazabalgo
Udala

3. LEGE-OINARRIA.

Bide Publikoen inbentarioak ondareari dagokion araudian errekonozimendu zehatza eduki ez arren, badu nahiko euskarri ez baimentzeko bakarrik, baita idaztera behartzeko ere.

1.- Toki Erakundeen Ondasunen Erregelamendua, 1372/1986, ekainaren 13koa. 17. artikuluan xedatzen den arabera, Toki-erakundeak beren ondasun eta eskubide guztien inbentarioa egitera behartuta daude. 20. artikuluan, g) idatz-zatian, bide publikoen inbentarioa egiteko jarraibideak ematen dira, eta dudarik gabe horien artean bideak aurkitzen dira.

Bestalde, Erregelamendu beraren 44. artikulua prerrogatiba hauek ezartzen ditu:

Toki-erakundeen ondasunak ikertzea, mugatzea, Ofizios berreskuratzea eta utzarazpen administratiboa. Esan daiteke bideen inbentarioa da aipatutako lehenengo prerrogatibaren isla dela, eta horren ondorioz, mugaketa-ahalmenak eta berreskuratzea.

Azaroaren 3ko ondarea arautzen duen 33/2003 legearen 6. Artikuluan xedatzen den arabera, Administrazio publikoek beraien ondasun publikoak kudeatzeko printzipioak errespetatu behar dituzte; "Inbentario edo erregistro egokien bidez identifikatu eta kontrolatu", kasu.

BIDEEN INBENTARIOA ONARTZEKO PROZEDURA.

Bideen Inbentarioaren figurak ez duenez berariazko lege-islarik, ez dago proiektua onartzeko aurrez zehaztutako prozedura. Hala ere, Ondasunen kalifikazio juridikoa aldatzeko prozedura

(Toki Erakundeen Ondasunen Erregelamendua) eta Inbentarioa onartzeko Erregelamendua

Ondasunen udalerria (Erregelamendu bereko 34. artikulua, egindako aldaketarekin)

Sektore Publikoko Kontratuen Legearen bigarren xedapen gehigarriaren arabera), inbentario hori onartzeko prozedura honako hau litzateke:

- 1.- Udaltzaren osoko bilkurak hasierako onespina ematea inbentarioaren zirriborroari
- 2.- Informazioa emateko eta alegazioak aurkezteko epea gutxienez 2 hilabetez irekitzea
- 3.- Osoko bilkurak alegazioak ebaztea eta inbentarioa behin betiko onartzea.

7. ONARPENAREN ONDORIOAK

Bideen Inbentarioak ez duenez bide berririk sortzen, ezta izaera aldatzen dokumentu hori onartzeak ez du ondorio juridiko berririk eragingo. Inbentarioak jasotzen ziren bideak publikoak ziren, eta, beraz, bere erregimenari dagokion printzipioak mantentzen dituzte (Preskribaezintasuna, besterenduezintasuna, enbargaiezintasuna)

Bide publiko horietakoren bat moztuta dagoela edo finka pribaturen batera bilduta, Udalak erreakzionatu egin beharko du, bidea publikoki erabiltzeko mugak desagertzeko bere ondasunak defendatzeko dituen prerrogatibak erabiltzea.



Idiazabalgo Udala

Inbentarioan sartzen ez diren bideek ere beren titulartasunaren ondoriozko araubidearekin jarraituko dute. Lehen adierazi bezala, baliteke titulartasun ez pribatuko (= publikoa) bideak inbentarioan jasota ez egotea. Hori dela eta, bide horiek ez dira titulartasun pribatura pasatzen, baizik eta horien erabileran eragina izan nahi duenak dagokion jabetza-tituluan oinarritu beharko du; izan ere, bestela, Udalak edozein unetan egiaztatu ahal izango du bidearen titulartasun publikoa, eta erabilera publikorako ireki ahal izango du. Aurreko gogoetak alde batera utzi gabe, inbentarioa onartzeak berehala ekarriko duen ondorioa argitzea izango da, hau da, inbentarioaren barruko bideak bide publikoak direla ziurtatzea, eta Udalak bide horien erabilera bermatuko duela. Planaren edukian gerta daitezkeen aldaketak Osoko Bilkurak onartu beharko ditu, hau da, Inbentarioaren lehen bertsio hau onesten duen organoak. Aldaketa horiek agregazioagatik (bide baten izaera publikoa aurkitzea, lagapena, etab.) edo murrizketagatik (Inbentarioan sartutako bideetako baten titulartasun pribatua egiaztatzea) izan daitezke.

Idiazabalen, 2022ko ekainaren 6an.

Idazkari-kontuhartzailea

Puntua bozkan jartzen dute eta AHO BATEZ honako hau onartzen da:

LEHENENGOA. Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea Osoko Bilkuraren erabakia eta bi hilabeteko epea eskaintzea ekarpenak edo alegazioak egiteko.

BIGARRENA. Alegazioak egon ezean, Osoko Bilkurak behin betikoz onartuko du bideen inbentarioa.

7. Tokiko ekintza jasangarria eta tokiko agenda Euskadin bultzatzeko Udalsarea 2030, Udalerri jasangarrien Euskal Sarean berriztapen akordioa onartzea, hala badagokio.

Alkateak komentatzen du bi ordezkari politiko izendatu behar direla eta teknikari bat ere bai; beraz, ondo irudituz gero, Alkatea eta Eunate Elio ordezkari politikoak izango lirateke, eta Andrea Etxauri teknikoa.

Puntua bozkan jartzen dute eta AHO BATEZ onartzen da Tokiko ekintza jasangarria eta tokiko agenda Euskadin bultzatzeko Udalsarea 2030, Udalerri jasangarrien Euskal Sarean berriztapen akordioa onartzea, hala badagokio.

8. Galdera eskaerak.

Ez dago.



Idiazabalgo
Udala

Behin puntu honetara, iritsita, arratsaldeko 18:15 direnean, bilera bukatutzat ematen da, eta bertan erabakitakoa jaso dut efektuak izan ditzan

Idiazabalen, 2022ko ekainaren 30ean.

O.I
ALKATEAK
Iñaki Alberdi Iparragirre

IDAZKARI KONTU HARTZAILEAK
Leire Ucin Soraluze